



VITORIA/GASTEIZKO FILM LABURREN XIX. JAIALDIA
UPV/EHU. Arabako Campusa

CORTADA 2015

IZENA EMATEKO AZKEN DATA: 2015eko URRIAREN 10ean

"CORTADA 2015" JAIALDIAREN OINARRIAK
VITORIA/GASTEIZKO FILM LABURREN XIX. JAIALDIA
UPV/EHU. Arabako Campusa
Vitoria/Gasteiz
2015eko abenduaren 1etik 5era

BALDINTZAK

1. Parte hartu ahal izango dute Espainian jaio edo bizi diren film laburren egileek.
2. 2014ko irailaren 1etik aurrera ekoiztutako filmak lehiatuko ahal dira.
3. Filmak gehienez ere 30 minututakoak izan behar dira.
4. Nahi beste film labur aurkeztu ahal izango du egile bakoitzak.
5. Lehiaketak ATAL OFIZIALA izango du. Batzorde batek aukeratuko ditu aurkeztutako film guztietatik zeintzuk joango diren lehiaketara. Lehiaketako saridunak EPAIMAHAI OFIZIALAK eta IKUSLEEK aukeratuko dituzte.
6. Hautatutako film laburrak hiru kategoriatan banatuko dira: FIKZIOA, DOKUMENTALA eta ANIMAZIOA. ANIMAZIO eta DOKUMENTALen kategoriek zein bere saria izango dute. Honez gain, kategoria hauetan hautatutako lanek aukera izanen dute lehiaketaren FILM LABURRIK ONENARI emango zaion saria lortzeko. Honelakorik gertatuz gero, ANIMAZIO eta DOKUMENTALerako saria epaimahaiak erabakiko lukeen hurrengo film laburrak jasoko luke.
7. CORTADAko FILM LABURRIK ONENARI EMANDAKO SARIAren irabazleak aukera izango du Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiaren 30 Goya[®] sarien aurretiko hautaketan izena emateko, Madrilen 2016ko hasieran.
8. Jaialdiaren beste atal bat GUREAK izeneko izango da, euskal film laburretarako besterik dena. Euskal film labur gisa hartuko dira zentzu zabalean, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Euskal Herri kontinentalean (Pirinio Atlantikoetako frantses departamentuaren barruan) jaio edo bizi diren pertsonen zuzendutako lanak. GUREAK saileko film laburrek berezko saria izango dute eta, honez gain, lehiaketaren FILM LABURRIK ONENARI eman

beharreko saria eskuratzeko aukera izango dute. Sail honetako film laburretako batek FILM LABUR ONENA eskuratuko balu, GUREAK saria EPAIMAHAIK hala aginduta, bigarren sailkatuari emango zaio. GUREAK saileko DOKUMENTAL eta ANIMAZIOko film laburrek ere aukera izango dute bi sari espezifiko horietarako.

9. Lehiaketak beste atal bat izango du, HEMENGOAK izenekoa, Arabako lurraldeko film laburrak sustatzeko eta berariazkoa horietarako. Atalaren helburua da bertoko lanak bultzatzea, eta aparteko saria izango du, EPAIMAHAI OFIZIALAK emandakoa. Atal ofizialerako eta GUREAK atalerako aukeratutako Arabako film laburrak ez dira sartuko HEMENGOAK atalean. Atal honetan hautatutako lanek ez dute bestelako saririk lortzeko aukerarik izango.
10. Lehiaketaren beste atal bat FREAKY POWER GAUA izango da, bertaratutako IKUSLEEK emaniko saria izango duena. Atal honetan hautatutako lanek ez dute bestelako saririk lortzeko aukerarik izango.
11. Jaialdiaren beste atal bat UNILABUR izango da. Estatuaren barruko edozein unibertsitate publiko edo pribatutako unibertsitate ikasleei eskainitakoa da. Atal honen barruan beste lehiaketa bat egongo da, EHULABUR deiturikoa, UPV/EHUko ikasleei ez beste inori eskainitakoa. Atal bi hauetako bakoitzak aukera izango du epaimahaiaren sari bat jasotzeko. UNILABUR atalean UPV/EHUko film laburrak egon daitezke eta, hautatuko balira, sari orokorrerako aukera besterik ez dute izango eta ez bere atalari dagokionerakoa. Ezin egon daiteke UNILABUR/eko film laburren EHULABUR atalean. Atal honetatik salbuetsita daude zinema eskoletatik letozkeen lanak. Unibertsitate batekoa dela egiaztatzeko, parte hartzaileek (ekoizlea eta/edo zuzendaria) egiaztatu beharko dute unibertsitateko gradu edo master bat ikasten ari direla, unibertsitate txartela edo halakorik egiaztatuko lukeen beste edozein egiaztagiri erakutsita.
12. CORTADA lehiaketarako aukeratutako film guztiak lehiaketaren katalogoan agertuko dira, eta lehiaketarako antolatuko diren jendaurreko emanaldietan ikusi ahal izango dira.
13. Ezin izango da batzordeak eta epaimahai ofizialak hartutako erabakien kontra egin.
14. Sariak. Honako sari ofizial hauek ezarri dira lehiaketarako:

Film labur onena	1200 euro + garaikurra
Gureak saria. Euskal film laburrik onena	1000 euro + garaikurra
Ikusleen saria	800 euro + garaikurra

Dokumentalik onena	500 euro + garaikurra
Animaziorik onena	500 euro + garaikurra
Hemengoak saria. Arabar film laburrik onena	500 euro + garaikurra
Unilabur saria	500 euro + garaikurra
Ehulabur saria	300 euro + garaikurra
Freaky Power saria	Garaikurra + oparia

IZENA EMATEKO

Izena emateko filma kargatu behar da MOVIBETA web gunean (<http://www.movibeta.com>) eta, honekin batera, izena emateko fitxa, legozkiokeen argazkiak eta, Unilabur eta Ehulabur atalen kasuan, unibertsitate txartela edo egiaztagiria.

Izena emateko epea 2015.eko urriaren 10ean amaituko da, ostiralaz. Ez da kontutan hartuko amaiera data honetatik aurrera igorritako film laburrik.

e-mail: festivalcortada@gmail.com

www.festivalcortada.com